

8/22

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-
azienda estentsiboaren ustiategiak
antolatzeke oinarritzko arauak garatzeko

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022eko ekainaren 9an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

Irizpena 8/22

I.- AURREKARIAK

2022ko maiatzaren 20an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia sartu zen eta txostena eskatu zuen *Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak garatzeko Dekretu-proiektuari* buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arau honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak zehazten dituen uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretua (untxien ustiategiak antolatzeko arauak xedatzen dituen ekainaren 25eko 1547/2004 Errege Dekretua aldatzen du) garatzea.

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritzia igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraiki. Garapen Ekonomikorako Batzordea 2022ko ekainaren 2an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen osoko bilkurak lan dezan. Bertan aho batez onartu da.

II.- EDUKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak garatzeko Dekretu-proiektuak zioen azalpena, 11 artikulua, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat ditu.

Zioen azalpenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak zehazten dituen uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuak (untxien ustiategiak antolatzeko arauak xedatzen dituen ekainaren 25eko 1547/2004 Errege Dekretua aldatzen du) helburu du txerri-azienda estentsiboan aritzen diren ustiategietan antolamendu zooteknikorako eta osasun-antolamendurako gutxieneko arauak zehaztea.

Nahitaezko Estatuko oinarrizko araudiak, besteak beste, txerri-azienda estentsiboaren ustiategiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzen ditu, hala nola abereen dentsitatea, azienden hedadura eta elikadura. Bakoitza definitzen da, eta eskakizunak ezartzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko txerrien sektorea berezia da sektore berak inguruneke beste autonomia erkidego batzuetan dituen ezaugarriak kontuan hartuta.

Uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuak zehazten dituen definizioen eta baldintzen arabera, behar bezala aplikatu eta Euskadin sektorearen behar berezietara egokitzeko, Estatuko oinarrizko araudia garatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu dadin argibide zehatzak zehaztu eta emateaz gain.

Xede horrez, dekretu-proiektu honen ondorengo artikulua hauek garatzen ditu:

1. artikulua. Euskadiko gobernantza soziosanitarioaren helburua eta eremua.
2. artikulua.- Definizioak

3. artikulua.- Txerri-azienda estentsiboaren sailkapena.
4. artikulua.- Txerri-azienda estentsiboaren gutxieneko baldintzak.
5. artikulua.- Maneiatu eta txandakatzeko programa.
6. artikulua.- Aziendaren erregistro-liburua.
7. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboen erregistroa.
8. artikulua.- Titularren betebeharrak.
9. artikulua.- Azienda berrietarako ala lehendik dauden aziendak handitzeko edo orientabide zooteknikoa aldatzeko baimenak.
10. artikulua.- Ikuskapena eta kontrola.
11. artikulua.- Zehapen-araubidea.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak garatzeko Dekretu-proiektua aurkeztu zaigu, guk iritzia eman dezagun. Arau honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan txerri-azienda estentsiboak antolatzeko oinarrizko arauak zehazten dituen uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretua (untxien ustiategiak antolatzeko arauak xedatzen dituen ekainaren 25eko 1547/2004 Errege Dekretua aldatzen du) garatzea.

Estatuko oinarrizko araudi hau nahitaez bete behar da, eta, besteak beste, txerri-azienda estentsiboen ustiategiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzen ditu. Baldintza horien artean ageri dira: abereen dentsitatea, ustiategien hedadura eta elikadura. Bakoitza definitu eta eskakizun zehatzak ezartzen dira.

Abeltzaintza estentsiboak, txerrienak barne, ekoizpena eta jasangarritasuna nahiz animalien ongizatea bateratzen ditu. Abeltzaintzaren ekoizpen-mota honetan lurraldeko baliabideak eraginkortasunez aprobetxatzen dira. Hala, arraza egokiak erabiltzen dira, eta ekoizpena (eta errentagarritasun ekonomikoa) ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunarekin harmoniaz egiten da. Abeltzaintza-metodo tradizionala da, eta paisaiarekin nahiz lurraldeko ohitura eta erabilerekin (hala nola transhumantzia eta abereentzako bideak) estuki lotuta dago. Abeltzaintzaren ekoizpen-sistema horrek funtsezko faktoreei erreparatzen die, besteak beste, abereak aske mugitzeari eta inguruneke natura baliabideak mantentzeari.

Ildo horri jarraikiz, abeltzaintza estentsiboak edozein lurralderako zenbait onura interesgarri sor ditzake, hala nola honako hauek: kalitate handiko elikagaiak sortzea, paisaia kontserbatu eta hobetzea, basoko suteak prebenitzea, lurzorua babestea, espezieen biodibertsitatea indartzea, ura arazoiz erabiltzea, giza despopulazioa saihestea, landaguneetan kultura ondarea kontserbatzea edo lurraldeko nortasuna garatzea.

Azkeneko urteetan abeltzaintza estentsiboa eta artzaintza hainbat eremutan protagonismoa irabaziz

joan dira, ez abeltzaintzarekin eta nekazaritzarekin lotutako espazio teknikoetan bakarrik, bai eta, gero eta maizago, honako gai hauetan ere: jasangarritasuna, natura-ondarea kontserbatzea, klimaren aldaketa prebenitu eta arintzea, landa-garapena edo lurraldea planifikatu eta kudeatzea, beste batzuen artean.

Hala eta guztiz ere, abeltzaintza estentsiboa gaur egun oraindik ez dago formalki karakterizatuta eta onetsita. Ez du berezko arauketa-esparru zehatzik, ez eta beste ekoizpen-sistema batzuek argi eta garbi bereizteko nekazaritza-jakintzagai gisa berariazko espaziorik ere. Hala dio Espainiako Gobernuaren Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren *“La situación de la ganadería extensiva en España. Definición y caracterización de la ganadería extensiva en España”* txostenak.

Azterketa bera aintzat hartuta, gaur egun ez daude azterketa edo diagnostiko zehatzak honako hauen inguruan: egungo egoera: ekonomia, lurralde edo populazioaren balantzeak; joerak eta etorkizuna edo Europa Batasunaren nekazaritza-politika erkideak sortutako esparruan txertaketa. Egoera honen oinarrian dago jardueraren berezko zehaztasunik eza. Berariazko sistematarako eskualdeko edo sektoreko zenbait ekimen izan ezik, ezin daitezke lurraldearekin hain lotuta ez dauden beste abeltzaintzako jarduera intentsiboago batzuetatik bereizi.

Horrela, **ezinbestekoa da oinarrizko araudia garatzea**. Helburua da abeltzaintzako jarduera hau hobe arautu eta antolatzea, beste ekoizpen-sistema batzuen aldean nagusitzen joango baita, EBren ingurumen, osasun eta nekazaritzako elikagaien politikaren joera berriek bultzatuta. Horrenbestez, **egokitzat jotzen dugu dekretu-proiektu hau egitea**. Hainbeste inplikazio eta eragin dituen jarduera ekonomikoari dagokionez, **behar bezala definitu eta antolatutako arau-esparrurantz beste urrats bat da**.

Bestalde, araua egiteko orduan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurraldeetako Foru Aldundiei kontsultatzeaz gain (zenbait eskumen dituzte) erakunde profesionali eta sektoreko elkarteei nahiz entitateei kontsultatu zaie eta haien iritzia kontuan hartu dela ulertzen dugu. Horren garrantzia azpimarratzekoa da. Beraz, **adostutako dekretu-proiektua** delakoan gaude, eta positiboki baloratzen dugu.

Eduki zehatzari buruz, aztertutako proiektuak Estatuko oinarrizko araudia garatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko sektorearen behar bereziei behar bezala moldatu eta egokiro aplikatzeko. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko argibide zehatzak definitu eta zehazten dira. Abiapuntutzat hartzen da euskal txerrien sektoreak **ezaugarri bereziak** dituela, sektore berak inguruneke beste autonomia-erkidegoetan dituen ezaugarriekin alderatuta.

Dena den, ez dira ezaugarri berezi horiek aipatzen, eta artikuluetatik ere ezin daitezke ondorioztatu. Ezagutu balira, hobe ulertu eta baloratuko litzateke sektorea.

Azkenik, **erabilitako teknikari dagokionez**, azpimarratzekoak dira kontsultatu zaigun dokumentuan arau ugari daudela eta behin eta berriz bidaltzen dela beste legezko testu baten artikuluetara. Gure iritziz, bi inguruabar horiek aplikatuko den arau-eduki zehatza ulertzeko ez dute erraztasunik ematen.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren iritziz egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak garatzeko Dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2022ko ekainaren 9an

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte